

ttipi ttapa

2006ko urriaren 5a • XXVI. urtea

431



«Alkoholiko Anonimoak» solasean 03

Alkoholaren menpekotasuna gainditzen laguntzeko elkartean egiten duten lanaren berri jakiteko Mariarekin izan gara: «Jendeak uste baino gehiago gara».



Arpana txapelketa Etxalarrera 29

Izaskun Ariztegi eta Lourdes Ariztegi etxalartarrek ezustea eman eta beraien lehen partehartzean Nafarroako arpana txapelketa irabazi zuten irailaren 24an.



04

«BAIETZ ORAINGOAN» LELOPEAN
PRESTATU DU LABIAGA IKASTOLAK

Nafarroa Oinez 06
urriaren 15ean Beran

Lur

urriak **7**

LUR D JOTAK

01:00 8€ kontsumizio bat dohainik 03:00ak arte

urriak **13**

LUR D JOTAK

01:00 8€ kontsumizio bat dohainik 03:00ak arte

urriak **14**

LUR D JOTAK

01:00 8€ kontsumizio bat dohainik 03:00ak arte

urriak **21**

MISS MISTER NAFARROA

23:30 8€ kontsumizio bat dohainik 03:00ak arte

urriak **28**



STUPENDA JONES

00:30 8€ kontsumizio bat dohainik 03:00ak arte

DATUAK...

- Puntuaki, «Alkoholiko Anonimoak» elkarteak informazioa emateko hitzaldiak antolatzen ditu.
- Eritasun hau gainditzen laguntzeko elkarte honetan eta bilera hauetan egiten duten lanaren berri jakiteko, Maria deituko dugun emakume beratarrekin izan gara.
- Mariak alpatu digunez, «eskualdean alkoholiko aunitz gaude, guk uste baino gehiago, baina ez dira taldeetara hurbiltzen beldurragatik eta jendearen zer erranagatik».



Maria «Alkoholiko Anonimoak» elkarteko kidea

ARGAZKIA: TTIPI-TTAPA TB

«Etxean alkoholiko bat dugunean, familia osoak sufritzen du»

Xan HARRIAGUE

Nola ohartzen da pertsona bat alkoholikoa dela eta nola sendatzen ahal da eritasun hori?

Gaixotasun hau sendaezina da, ez da sendatzen. Baina ikasten ahal dugu onartzen, bide onetik nola bideratzen den eta pertsona aitzinera ateratzen. Hori posible da.

Zer lantzen duzue herriz herri egiten dituzuen solasaldietan?

Norberak bere esperientzia kontatzen du, nola bizitu garen alkoholaren menpe eta nola bizi garen orain alkoholik gabe. Solasaldi hauek ez daude bakarrik alkoholikoei zuzenduak, nor-nahi joaten ahal da. Baina erioi, baditugu gure terapiako bilerak, normalki jendaurreko solasaldien aitzinetik.

Aipatu duzue zuen esperientziak kontatzen dituzuela. Eritasuna sendatzeko edo eritasunarekin bizitzen ikasteko lehen urratsa, eritasuna baduzula onartzea izanen da...

Hori da zailena, eri zaudela onartzea. Baina behin onartuz gero, lan gehiena egina dago. Horretarako daude terapia-talde hauek, elkar laguntzeko eta gure esperientziak trukatzeko.

«Geure biziak ezin ditugu guk nahiko genuekeen bezala bizi, baizik eta alkoholaren menpekotasunak manatzeko gaitu»

Taldeetara hurbiltzen direnak, nolabait onartu dute alkoholikoak direla. Baina nola laguntzen ahal dugu ondoan bizi eta eri dagoela onartzen ez duen alkoholiko bati?

Taldeetara ailegatzeko den jendeak oraindik ez du onartua bere gaixotasuna. Talde hauetan ikasten du nola onartu behar duen eritasuna. Izan ere, hau onartzea arrunt zaila da. Orduan erakusten diegu guk zer egin genuen eta nola onartu genuen, beraiek gauza bera egin dezaten.

Zein dira alkoholismoaren lehen sintomak? Noiz erraten ahal da pertsona bat alkoholikoa dela?

Norberak bere bizi ezin duenean gobernatu erraten ahal da eri dagoela, alkoholak gobernatzen baitu bere bizi. Pertsona ez da bera, alkoholaren menpe dago. Ez gara ohartzen gero eta gehiago edaten dugula, gero eta gehiago behar dugula eta al-

kohola edan gabe ezin dugula pasatu, alkoholak menperatzen gaitu. Horretan somatzen da menpekotasuna: geure biziak ezin ditugu guk nahiko genuekeen bezala bizi, baizik eta menpekotasun horrek manatzeko gaitu.

Nola hasten da pertsona bat alkoholismoan erortzen?

Alkoholikoa poliki-poliki hasten da edaten; gaur zerbait edan eta gero eta gehiago sartzen du. Azkenerako alkoholak menperatzen du. Hau droga bat da, baina gizartean ongi ikusia dagoena, gehien partez gure kulturaren zati bat delako. Horregatik, droga hau nonahi aurkitzen ahal duzu.

Ondoan dagoen pertsona batek nola laguntzen ahal du?

Terapiak ez dira bakarrik alkoholikoentzat, familiakoek ere badute terapia-bilerak. Eri gaudenok «Alkoholiko Anonimoak» taldekoak gara. Senideen elkarte ere bada eta baita, seme-alabei edo gaztetxoei zuzendua ere. Horrelakorik ez dugu Beran, baina bai Irun eta Iruñean. Etxean alkoholiko bat denean, familia osoak sufritzen du. Alkoholiko horrekin bizitzen erakusten duten taldeak dira.

DEFINIZIOAK



Irudiaren erranahia

«Traba guztien gainetik eta botatako izerdi guztiaren ondotik gure proiektuak aitzinera jarraitzen du. Logoan agertzen den etxeak ikastolaren proiektua adierazten du, zurrunbiloak, ditugun trabak, eta bertan agertzen diren tantek, botatako izerdia».

Baietz oraingoan!

«10 urtez egindako esfortzuaren ondotik eta ikastolaren proiektua aitzinera eraman ondotik, ailegatu da etorkizuna bermatzeko unea, eta ziur gaude oraingoan lortuko dugula, beraz, Baietz Oraingoan!!!»

EGITARAU ZABALA

Ioana Itigez, Nafarroa Oinezeko antolatzaileetako batek alpatu digunez, «*honetako egun berezietan, pixko bat denentzako ekitaldiak izatea saiatzen gara, haurrentzako eta helduentzako, euskal folklorea eta rocka... Berara hurbiltzen diren guziek denbora pasatzeko gustoko zerbait topatzea da helburua. Gainera, area guzietan denentzako zerbait izatea nahi izan dugu, hau da, ez izatea gazteentzako area bat edo haurrentzako bertze area bat, jende pilaketak saihesteko eta jendea zirkuitoan zehar mugitzeko». Alde horretatik, urtero huts egiten ez duten taldeak izanen dira: Oskorri, Tapia ta Leturia... Dantzari talde ugari izanen dira, karrika animazioak ere garrantzi handia izanen du, batez ere zirkuitoko areak lotzen dituzten bideetan: «*txarangak, joaldunak, fanfarreak, kamika antzerkia...*». Euskal Herri osoko taldeak etorriko badira ere, Joanak bereziki eskerrak eman nahi dizkie antolaketan lagundu duten eskualdeko taldeei, «*jarri duten go-goarengatik*».*

Arratsalde partean kontzertu «*potenteagoa*» izaten da, jendea biltzeko eta bestari bukaera emateko. Kontzertu horretan izanen dira Berako Sexty Sexers taldea, Kuraia eta bukatzeko Aritz Sound System Dja.

LABIAGA IKASTOLAREN MUGARRI HISTORIKOAK



ARGAZKIA: LABIAGA IKASTOLA

Labiaga ikastolako lehen taldea, Pili Gartxitorena irakaslearekin.

1970EKO HAMARKADAREN HASIERAN

Lesakako eta Berako gazte batzuek hainbat guraso konbentzitu zituzten ikastola abian jartzeko.

1974

Hogei haur inguru bildu ziren lehen eskolak jasotzeko. Haietako hemezortzik bukatu zuten ikasturtea. Lehenengo irakaslea 17 urteko Pili Gartxitorena izan zen. Hasiera hartan Herriko Etxeko geletan zegoen ikastola, baina toki aski ez zegoenez gero, apezari Lagun-etxea hartu zitzaion errentan.

1980-1981

Garai hartako eskola nazionalaren egoitza zaharrera (Aitzate) sartzeko baimena lortu zen, eraikina hagitz egoera kaskarrean egon arren. Horretaz gain, diru laguntzak eskasak ziren eta presioak zeuden ikastola legezatu gabe zegoelako.

1983

Berari egokitu zitzaion Nafarroa Oinezaren hirugarren edizioa egiteko aukera eta ardura. Arrakastatsua izan zen hagitz: 15.000 lagun inguru bildu ziren. Lehenengo aldiz abesti ofiziala egin zen Nafarroa Oinezarako. Lortutako diruari esker eta udalaren laguntzarekin, erortzeaz zegoen Aitzateko eraikina erabat moldatu zen.

1984

OHOko zortzi mailerako administrazio-baimena lortu zen. Handik aitzinera ikasle kopurua etengabe handitu egin zen (oro har, 250).

1994

Aitzineko Nafarroa Oinezaren egun berean (irailaren 18a), Berako biga-



Bigarren promozioa, Lourdes Irazoki irakaslearekin.

ren Oinez besta egin zen. Helburua Eztegarra pasealekuko Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzarako eraikin berria egiteko laguntza lortzea zen eta, eta era berean, Aitzateko egoitza DBHrako hustu.

1995-1996

Ikasturte honetan DBHko lehenengo zikloa ezarri zuten Labiagan. OHO sistema behin betiko desagertu zen Nafarroan. Labiaga ikastolak etapa hori legeztatzeko jarri zitzaizkion eta oraindik jartzen zaizkion traba mordoekin eta lotsagarriekin topo egin zuen.

2000

HHko eta LHko etapak kontzertatuak badaude ere, oraindik ez du DBHrako baimen administratiborik eta, halaber, ez du Nafarroako Hezkuntza Departamentutik diru laguntzarik jasotzen DBHko ikasle horientzat.

2005

32 urte hauetan kooperatibaren parte diren guraso, bazkide, ikasle ohi eta irakasleen elkarlana garrantzitsua izan da lanak aitzinera eramateko eta zamak guztien bizkarretan banatu ahal izateko. Labiaga ikastolaren hirugarren Oinez-aren antolaketa gozoz eta ilusioz beterik hartu dute.

Lege Gordailua: NA-1324/85
ISSN: 1578-4873
Franko Itundua: 34/79
TIRADA: 6.000

ttipi-ttapa aldizkaria
Anduzeta, 12
E-31760 ETXALAR (Nafarroa)
Tfnoa: (+34) 948 63 54 58
Faxa: (+34) 948 63 54 57
www.ttipi.net
info@ttipi.net

Argitaratzailea: ttipi-ttapa fundazioa.
Presidentea: Pello Apeztebrea.
Kudeatzailea: Joxemmanuel Irigoien.
Zuzendaria: Aitor Arotzeta.
Publizitatea: Kulturkari, SLU.
Administrazioa: Amaia Goia.
Berriemakileak: Esteban Arotzeta, Juana Mari Saizar, Kontzi Klüber, Peio Zestau, Arkaitz Mindegia, Franck Dolosor, Margari Eberniko, Koro Irazoki, Juan Carlos Mortalena, Laetitia, Sandrine eta Krispin, Angela eta Xamo, Aitor eta Fanny, Nerea Aitzuri, Oskar Txoperena, Joseba Olagarai, Nerea Mibeltorena, Aitor Arotzeta, Amaia Odriozola, Ainhoa Irazoki, Maite Oteiza, Rakel Amigo, Iratxe Kontsumitzaileen Elkarte...
Imprimategia: Gertu.
Erakunde laguntzaileak: Etxalar, Leitza, Goizuetza, Arano, Areso, Baztan, Urdazubi, Sara eta Senpereko udalak, Zugarramurdioko Akelarre elkarte, Bortzirietako Euskara Mankomunitatea, Maierrekako Zerbitzu Mankomunitatea...

Harpidetzari sariak:

Hego Euskal Herria	30 €
Espainia	30 €
Sara (edantegia-okindegia)	40 €
Ipar Euskal Herria	50 €
Europa	50 €
Amerika	108 €
Baztan, Urdazubi, Maierreka eta Leitza	25 €



Aldizkari honek Nafarroako Gobernua laguntza jaso du



Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren laguntza jaso du

• IRAKURLEAK MINTZO •

Guztiok espetxera!

Hamar urte igaro dira ia-ia 97ko otsailaren 14tik, guk biok elkar ezagutu genuenetik. Aste horretan, Euskal herrian gertakari urriak gertatu ziren. Kabueri, Txori eta Beltzari gertatutakoak lur jota utzi gintuen. Lehendabizikoa espetxean hil zen, bigarrenak ez zuen espetxean sartu nahi eta hirugarrenak, intsumitua baitzen, ez zuen itzuli nahi izan espetxera lotara.

Gu blok, ortziral horretan, goiz jaiki ginen Auzitegi Nazionalan agertzeko. Salaketa diferenteak genituen, baina sumario berebera genituen. Hilbeltzaren hasieratik hogeit hamar pertsona baino gehiago abilotu zituzten Iruñean eta Iruñerrian, "Y" taldeetako ustezko partaideak izateagatik. Axtiloketa hauen eraginez dozenaren bat gazte espetxeratu zituzten, eta hurrengo egunetan abilotuak gehiago izan ziren.

Gu, aldi hartan, "zorioneakoak" izan ginen, izan ere ez genuen komisaldegira joan beharrik izan, baina azkenean Carabanchelgo espetxe famatua ezagutu genuen.

Gu espetxeratzekolurueko gazte batzuen deklarazioak erabili zituzten, gazte hauek hiru egun komisaldegian eman ostean egin zituzten aipatutako deklarazioak. Gure kontra ez dute, eta ez zuten, frogarri bakar bat ere. Halere, Fiskalak, akusazio partikularrak (Terrorismoaren Biktimek) eta bigarren gelako Epaeleak erabaki zuten gizartearentzat arriskutsuak girela eta ez zuten konbentzitu gure adierazpenik ezertarako ere.

Espetxeratuak izan ginenean, egunkarietan bikotetzat aurkeztu zituzten, polizia sinetsiz, albiste egiazatu gabe. Arantxak, gainera, sei hilabeteko haurdunaldia zeraman baruan. Bazuten komunikabideek "kale borrokaren saltsa arrosa". (...)

Orain, 2006an, hamar urte geroago, hots egin digute hamabi gazteei, Madrilen irailaren 22an epaitzeko. Eskarera 400 urte baino gehiagoko espetxe zigorrak dira. Epaiak hila hila bat edo bi iraungo du, horrek dakarren guztiarekin; gure lanpostuak edo ikasketak galtzea, Madrilera bidaiako gastuak...

Arantxak, lanpostu behin-betikoa du, Iruñeko denda batean. Ez dakigu zer gertatuko den horrekin. "Badut alaba bat bederatzita urtekoa eta ezin dut egunero Madrilera eraman epailetara. Eta orain ume gizona gaizki pasatzen badu, ez dut pentsatu nahi nola jarriko den egun gutxi barru nire albotik bereizterakoan bere ama itzuliko den ala ez jakin gabe, edo, zer esanik ez, kale borrokarengatik 56 urteko espetxe zigor ikaragarria bete behar dudala erranen balioke."

Bertze aldetik, Mikel, bigarren hezkuntzako irakasle funtzionarioa. "Aurten liberatu egin naiz euskara ikasteko. Ez dakit zer gertatuko den nire ikasketekin egunero Madrilera joaten banaiz bi hilabetez. Baina garrantzitsuena ez da hori. Kezkagarria da kristal batzuk apurtzeagatik 11 urteko espetxe eskaera izatea. Konparatzen badugu nire kasua Angel Berroetaren hiltzaileei eman zietenarekin, alde eder dago. Eta alderatzen badugu hiru labankada hiru pertsonari emateagatik ezarritako 4 urteko espetxe zigorrarekin,

Iruñean gertatutakoa... Merkeagoa ateratzen da pertsona bat hiltzea kristal apurtzea baino".

Gure kasuak, dena den, ez dira bakarrak. Euskal herritar askok derrigorrez eman behar dugu gure portararen berri urrutiko hiri batean eta gainera Frankismoaren garaiko auzitegi batean. Benetan delitoren bat egin badugu, zergatik ez gaituzte Nafarroako Foru Erkidegoan epaitzen?

Gure abokatuei dagokienez, leporaino daude hainbertze epailetan direla eta, eta ezin dituzte prestaketak behar bezala egin. Garbi dago, gainera, orain preso gehiago badira, Estatuko Gobernuak "banpo truke" erabili nahiko gaituela ustezko negoziazioan. Modu ederra gatazka politikoari aurre egiteko. Nola sar daiteke pertsona bat espetxean bi eskutitz idazteagatik? Herri "bananero"etan eta Espainiako Estatuan ez bada, inon ez. Eta aski da hori beste guztia ulertzeko.

Mikel Auza Makutso
Arantxa Rus Gabaldon
(Iruñea)

Ituzia
NATURALEZKO BERRIKUNTZA
HIDROERREINTZA
HIDROSENBRA
FERMIN MANTOITZENA LARRAZIA
Aldizkari honek Nafarroako Gobernua laguntza jaso du

ttipi-ttapa
www.ttipi.net
info@ttipi.net

arropak - maindirak
mantak - nordikoak
toallak - kortinak
alfonbrak
Bera
Goya
Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren laguntza jaso du

MEDIKUNTZA NATURALA
NATUROPATIA
Kontuak ordategi: 9etatik 12etara eta 16etatik 19etara. Ordue eskola
ONDORIOETATIK INDARTZEKO:
Diabetes - Asma - Zizareak - Larru azaleko alergia - Buruko mina
Oinen izerdia - Prostata, etab...
IKUSMENAREN BERRIKUNTZA:
Miofia - Bista ahertua - Estrabismoa - Begi lusuak kataraktak
GHARRE ARAZOAK:
Bikortzea - Arthritis - Erreuma - Artritis - Lumbalgia - Bihurdurak - etab
Telefonoa: 943 623 055
San Marcial, 7 - 4 - IRUN

• PRENTSATIK BILDUTAKOAK •



D. NAVARRA 2006-09-27

«Beti zerbait aitzintzen dugu eta uste dut ezin dugula aunitz gehiago hobetu. Maila ona lortu dugu eta hori mantentzea zaila da. Dena den, guk dauzkagun aretxe guziak ez dira Elizondora eraman genituen hogeia bezala, horiek onenak dira. Ez gara hori errateko bezain harroak izan behar. Arraza erregularra izan behar da eta aitarekin asmatzea ezinbertzekoa da. Behi polit bat zezen on batekin emaltzen baduzu, arraza hobetuko da».

«Menditik ibiltzea gustatzen zait asko, eta Gorramendikoak izugarriko lotsa eman izan dit beti». «Gastu guztiak bere gain hartu eta mendia lehen zegoen bezala utziko dutela agindu digute (Nafarroako Gobernuko Mendi Atalekoak). Edo ia-ia. Izan ere, ezinezkoa omen da erabat lehengoratzea. Izugarria baita han dagoena. Porlan asko eta asko, eta lur azpiko zulo handi-handiak. Lur asko bota beharko da, eta belarra erein. Nahi dutenean kenduko dute».

Jose Antonio INDART
Legasako abeltzaina
D.Navarra 2006-09-27

Santiago ALDAKO
Batzango alkateordea
BERRIA 2006-09-24

• 11 GALDERA LABUR •

Besta egiteko nahiago duzu Nafarroa Oinez ala herriko bestak?
Aurten, dudarik gabe herriko bestak. Aurten Nafarroa Oinez lanean lana berterik ez dugu eginen eta...

Zein da aurtengo egitarauan gustukoaren duzun ekitaldia?
Urteko ekitaldietan, maiatzean egingako Mendi Asteburua izan dut gustukoaren. Oinez eguneko egitarauari erreparatuz, aldiz, belardian etzan eta lasai egoteko aukera ematen duen edozein.

Zerbait aldatu behar bazenu egitarauan, zer aldatuko zenuke?
Ez nuke ezer aldatuko, egitaraua horrelakoa suertatu bada zerbaitegatik izanen da... eta horrekin aurrera egin behar da. Aukeratutakoan konfiantza eduki beharko dugu...

Zerk erakartzen dizu bolondres ariztera?
Aspalditik aritua naiz kultur arloan bolondres lanean egiten... gustokoa dut ahal dudan heinean horrelakoetan laguntzea...

Ez ote da lan handiegia, jakinik azkenean eguraldiak dena baldintza-

tuz gero, eguraldiak eta beste gauza askok baldintzatu dezakete Oinez eguna, baina ilusiorik ez gaitzea, hori da garrantzitsua.

Nafarroa Oinez lanean arituko zara. Hala ere, besta egiteko astirik hartuko duzu?

Jendea etxera bueltan joaten denean, ilunabarrean ailetuko da antolatzaileentzako bestarako tartea...

Lan handiena zein da, aitzinetik egiten den lana edo egunean bertan egiten dena?

Dudarik gabe aitzinetik egiten dena. Antolakuntza aritu zareten taldeari 10en gain nota bat eman behar bazenu, zenbat emanen zenuke?

Batazbesteko nota 8 gaindituta, baina hori, bataz batezbestekoa...

Nafarroa Oinez pasatu eta, zer egin behar duzu?

Mendira joango naiz, estresaren ondorioak kentzera!!!

10 urteren buruan Nafarroa Oinez berriz ere Beran bada, antolakuntzan arituko zara edo besta egiteko aprobeztatuko duzu?

Ba, orain besta eginen dudala erraten badut ere, momentua ailetuta seguraski berriz ere antolakuntzan sartuko nintzateke...

Zein da antolakuntza aritzearen alde txarra?

Egin beharreko guztiak aitzinera eramateko egunak ordu kopuru txikia duela.



Ioana IÑIGEZ
Nafarroa Oinezeko antolatzailea



ainhoa estilista

berria RUTH ILEAPAINDEGIAN
betiko tokian aurkituko gaituzue!!

udazkena dator eta
udazkenarekin batera,
joera berriak
ile mozketetan eta
koloreetan

SOLARIUM, SPRAY SOL, AURPEGI DEPILAZIOA,
MAKILAIA, MANIKURA, TRATAMENDUAK,
ILE BILDUAK, ILE-LUZAPEN...

Bitirria 59 • LESAKA • 948 637 438

KULTURA

Bidasoaldeko Film Laburren Nazioarteko Zinemaldiko sariak banatu ziren Elizondon

Urrezko Iratzea Rafa Piquerasen "El Mejor mecanógrafo del mundo" filmak irabazi zuen

ttipi-ttapa

Elizondoko Lur Dantzalekuan egin zuten irailaren 15ean Bidasoaldeko Film Laburren IX. Nazioarteko Zinemaldiaren bukaerako ekitaldia. Aurtengo edizioari agurra emateko tangoaren munduan oinarritutako ikuskizuna prestatu zuen Jexux Bailonek. Mirentxu Goleinetxe, Itziar Obregozo eta Kepa Lazaro aktoreek, Adriana Olmedo kantariak eta Javier Bruna kitarra joleak parte hartu zuten, Marijo Garmendiak aurkeztutako saioan. Isabel Osakar eta Saioa Salabururen laguntza izan zuten makilajea eta ileapaintze lanean.

Sariei dagokienez, obra hoberenaren Urrezko Iratzea eta 4000 euroko saria, Rafa Piquerasen zuzendutako "El mejor mecanógrafo del mundo" k eraman zuen. 18 minutu irauten duen obra honetan, Ernesto Casanova da protagonista nagusia, 35



UTZITAKO ARGAZKIA

Bidasoaldeko bederatzigarren zinemaldian sariak jaso dituztenak.

urteko mekanografoa. Abokatu bulego baten tizat lan egiten du eta bere nagusiaren idazkariak maiteminduta dago. Filma monotoniagoan iragaten da, nagusiak ordenagailu bat erosten duen arte. Orduan Ernestok bukaera hurbiltzen ari zaiola oharitzen da.

Mario Iglesiasek zuzendutako "Madres" fil-

mak eskuratu zuen bigarren saria, hau da Zilarrezko Iratzea eta 2000 euro. Giro triste eta nagusia den film honetan, Julia margolaria bere alabarekin bizi da Galizako kostaldean. Duela gutxi hil zaiola eta bigarrenaren haurdun dago. Behin andre bat heldu zaio, hila den bere semeaz erretratu baten eskatzeko. Lan be-

rezi horren burutzeko ez du ezta argazki baten laguntza ere izanen. Obra honek publikoaren saria ere eskuratu du.

SEI BRONTEZKO IRATZE

Bi sari horiez gain, arloen arabera, Bronitezko bertze sei iratze banatu ziren. Gai naturalista edo giza balore-

ak hobekien jorratzen dituen filmaren irabazlea, Daniel Chamorrok zuzendutako "Solo para Chelo" izan zen.

Animaziozko lan hoberenarena Jorge Laplaceren "Palomita Mia" k eraman zuen.

Akitania, Euskal Autonomia Erkidegoko eta Nafarroako film hoberenarentzat ere bronzeko iratze bat aurre ikusi zen. Aurtengoa Igor Zabala eta Xabier Etxandia zuzendariek aurkeztutako "Argentina" k irabazi zuen.

Aktore hoberenak ere Brontezko Iratze bat irabazi du. "Morir, dormir, soñar" filmari ari diren Miriam Montilla eta Ana Walgenerek konpartitu behar izan zuten saria.

Diru saririk ez zuten Brontezko Iratzeei dagokienez, argazki hoberenaren saria Eduardo Chaperok zuzendu duen "Contracuerpo" ri eman diote eta, aipatu bezala, «Madres» i publikoaren saria.

caroha
guztegia okindregia

27 de erategara 25 bago
9700 bera@navarra.es

1948 60 08 99
www.caroha.net

TOAILAK

Toailak-Mantelariak-Oheko maingidireak
Eskolako haurren mantelak etab...
bordatzzen ditugu

Herriko bestetarako, kamisetak, eta blusa
peña bakoitzaren logotipo eta izenekin
bordatzzen ditugu

Itami Plz. Berría 4-ra eta ikusi bertako ekoizpena!!! Tel. 948 627 660 - 689 481

ATM S.A.

AUXILIAR DE TRANSFORMADOS METALICOS S.A.

Igantzikoko Bentak
© 948 63 74 11

- Txapa mozketak eta tolestea 6 metro bitarte, neurria eta diseinuaren arabera.
- Enbalaketa elementuak eta flejeak.
- Garraio zintak eta mahaia.
- Mantenu rodilloak.

ZJ

Zalain
jatebxea

Hostala

14 logela,
bainu eta TBrekin

Pl. Berría 4-ra • Tel. 948 627 660
Bera - Nafarroa

BERA

Euskaltzaindiaren Batzarra Beran egingen dute urriaren 6an

“Nafarroa Oinez non batzarra han” egin ohi dute azken urteotan

Amaia eta Ainhoa

Urtero Euskaltzaindiak Nafarroa Oinez ospatzen den herrian antolatzen du urteko Euskaltzaindiaren Batzarra, beraz, aurten Beran bilduko dira parte hartzaileak. Urriaren 6an izanen da, Nafarroa Oinez bestaren aitzineko astean, eta egunean zehar banatu dituzte ekitaldi ezberdinak. Eguerdiko 12etan Euskaltzaindiako Zuzendaritza bilera izanen da, eta ondotik, Labiaga Ikastolak Altzaten duen egoitza bisitatuko dute. Arratsaldean, lehendabiziko orduetan, Sustapen Batzordeak bilera egingen du eta bukatzen denean, ageriko ekitaldiak ospatuko direnez, edonor hurbil daiteke horiek ikustera. Ageriko ekitaldi horiei hasiera emateko, Maider Senperrek, ikastolako zuzendariak, agurra egingen du. Ondotik Andres Urrutia

Euskaltzainburuak aurkezpena. Patri Arburua, Bortzirietako Euskara Mankomunitateko teknikariak, Bortzirietako euskararen bilakaera eta egungo egoeraren inguruan arituko da, eta bukatzean, Euskaltzaindiaren biliburu aurkeztuko dira. Joxan Oizek ere, Labiaga Ikastolako euskara irakasleak, hitzaldia emanen du. Segidan, Akademiaren adierazpen bilduma eta Eliza eta euskera jardunaldien liburua aurkeztuko dituzte A. Urrutiak eta A. Iñigok. Ekitaldi guztiei akabera emateko, Helena Santesteban alkatesa andereak azken hitzak eskainiko ditu.

Elikadura eta nutrizioa hitzaldi sorta

Berako Udalak antolatuta, hilabete honetan elikadura eta nutrizioaren inguruko hitzaldi sorta izanen da Nagore



ARGAZKIA: GORIO

XII. Dantzari Ttiki Eguna egin zen irailaren 23an

Gure Txokoak hamabigarren aldiz antolatutako Dantzari Ttiki Eguna egin zen irailaren 23an. Eguraldia lagun zutela, 80 dantzari bildu ziren. Gure Txokoakoekin batera kanpoko bi talde etortzekoak baziren ere, azkenean Senperekoek huts egin zuten eta Zaldibiakoak baizik ez ziren agertu. Taldeak auzoz auzo ibili ziren eta eguerdian, Altzateko plazan eskaini zuten dantza emanaldia. Bazkaltzeko, kanpotik etorritako haurrak Berako dantzarien etxeetan banatu ziren eta arratsaldean, Kulki kirol jaialdian parte hartzeko aukera izan zuten.

Txoperenaren (Berako Udaleko dietista) eskuetik. Bi sailetan banatu dira hitzaldiak. Urriaren 9an Haurdunaldia eta bular ematea, urriaren 16an Kirola eta elikadura, urriaren 23an Elikadura osasungarria haurtzaroan eta nerabezaroan eta urriaren 30ean Elikadurari loturiko sinesmenak edo usoteak. Hitzaldi guztietan parte hartzaileen artean adostuko da erabiliko den hizkuntza.

Greba Composites Gurean
Composites Gurea lantegiko enpresa-batzordeak (ELA-LAB) deituta, «bizitzan ari diren

gatazkaren aitzinean zuzendaritzaren negoziatzeak jarraera ezkorra ikusirik» langileak greban egon dira irailaren 28 eta 29an. Berako lantegietan «deslokalizazioak dakarren lanpostuen galera, enpresaren behin-behineko kontrazio politika, lan istripuen aurkako plana ez betezea, maila profesionalaren berrikuspenari uko egitea eta soldadak ez igotzea» dira eztabaidatu nahi dituzten puntuak. Langileak bi egun horietan lantokien aurrean egon dira eguerdiko 13:00etatik aitzinera langile-batzordeak deituta, «bizitzan ari diren

ANSONEA
Ostatua - Jatetxea
Eguneroko menua eta asteburutar menu bereziak
Terraza estalia eta Ziberkafea
Forzan Plaza 1 - 948 621 155 - BERA

ZUBIONDO JATETXEA
Alasta karrika
BERA NAFARROA
TLF 948 625 472
sagardotegia jatetxea sagardotegia

LABE ZAR
Tel: 948 631 076 - BERA

LESACA

Bi langile hil dira Endarlatsa eta Alkaiagan izandako lan istripuetan

Segurtasun baldintzak betetzen ez direla salatu dute sindikatuek

Aitor AROTZENA

Javier Marturet Jau-regi, 51 urteko Iruñeko langilea lan istripuan hil zen irailaren 20an. Ez-beharra 17:00ak aldera gertatu zen Alkaiagako industrialdean Neumaticos Bidasoa enpresak egiten ari duen nabe berrian. Itxura denez, hildako langilea garabi baten gainean eta saski baten barrenean sartua ari zen lanean metalezko egitura batean soldadura lanak egiten, lurretik hamar metro ingurura. Momentu batean, garbi ez dauden arrazoiengatik, saskia dilindan hasi eta garabitik beheiti erori egin zen. Hildako langileak Montajes Uztarroz erakuntza enpresarentzako egiten zuen lan.

Alkaiagako Istripua gertatu bezain pronto Lesakako osasun zerbitzuko kideei eman zieten abisua; 112 Larrialdietarako telefonoan ere deia hartua zuten. Medikuek, ordea, ezin izan zuten deus egin 51 urteko gizona salbatzeko eta anbulantzia aliegatu zenerako langilea hilik zela ziurtatu zuten Lesakako sendagileek.

Langilearen gorpu hila Iruñera eraman zu-



ARGAZKIA: ORONOZ

Alkaiagan gertatutako lan istripua salatzen elkarretaratzea egin zuen ezker abertzalek plazan irailaren 21ean.

ten, Nafarroako Ospitalera, autopsia egiteko. Foruzaingoak hartu zuen bertan gertatu zena argitzeko ardura, eta saskia garabitik libratzeko arrazoia zein izan den zehaztekoa. Datu guztiak Iruñeko dago-kion epaitegira igorriko dituztela ezagutarazi dute foruzainek.

**SORIAKO KAMIOIA
ENDARLATSAKO ZUBITIK
BEHEITI**

Bertzalde, irailaren 23an, Angel Rafael de Andres, 56 urteko kamioi gidari soriarra hil

zen N-121A errepidean, Endarlatsako zubian izandako istripuan. Ezezagunak diren arrazoiengatik gidatzen zuen kamioia zubitik behera joan zen. Ibilgailuaren aitzineko aldean urean gelditu zen eta larrialdietarako zerbitzuek garabi baten laguntza behar izan zuten gorputza ateratzeko.

Soriako gidariak eskualdea aski ongi ezagutzen zuen, Lesakako Transportes Bidasoarentzat lanean aritu zen eta N-121atik joan etorrian maiz ibiltzen zen

lanerako. Jakinez lekua ezagutzen zuela eta, arrasta arrastorik ez izateak zalantzak sorrarazi ditu istripuaren zirkunstantziak buruz.

Istripuarengatik, trafikoa itxita egon zen 13:30etik 14:15era eta kamioia uretik ateratzeko 15:15etik 17:00etara. Ordu erdi beranduago trafikoa normaltasun osoz ibiltzen zen.

Bi heriotzak salatzen dituzte sindikatu ezberdinek, izan ere Nafarroan 20 langile hil dira aurtan lan istripuan.

FLASH

Legazpiko abesbatzaren kontzertua

Larunbat honetan, urriak 7, kontzertua eskainiko du Legazpiko abesbatzak elizan, 19.30etako meza ondotik. Giltzarri abesbatzak antolatu du ekitaldia.

Ameriketara joan ziren artzainen besta

Urriaren 22rako antolatu dute herrian Bortzietatik Ameriketara joan ziren artzainen besta. Egitarauaren xehetasunak hurrengo alean luze eta zabal emanen baditugu ere, herriko karrketan zaldunek gidatutako artaldeak, ardi labren erakusketa, ardi ile mozketa erakustaldiak eskuz eta makinarekin, gazta tailerrak, zintzarrien erakusketa, artzainek zuhaitzetan utzitako seinaleei buruzko erakusketa eta argazki eta bideoak ikusteko aukera izanen da. Bazkaria ere izanen da frontoian eta ondotik opari banatuko dira eta Estatu Batuetarako bidai bat zozketatuko da.

Elikadurari buruzko 4. Jardunaldiak

Elaia elkarteak antolatu, laugarren aldiz nutrizioari edo elikadurari buruzko jardunaldiak egingen dira. Urriaren 25ean, asteazkenearekin, «Erosketa saskia» izeneko mahaingurua egingen da Kasinoan, 17:00etan.

TALLERES BERRIZAUN
GASOLINERA LESACA
IMANOL TELLETXA ZUZAYA
Tfnoa.: 948 63 74 60 • 31770 Lesaka

Alberto RETEGI
abokatu
abokatu
© 948 630 763 - Altzate, 17 - BERA

GOZZALDE
HARRERENDIA
BILBO 43 • 27 540 0000 • LESACA

ETXALAR

Igande honetan, urriak 8, egingen da Usategietako Igandea

Aste bat aitzinatu dute besta, Berako Nafarroa Oinezekin ez suertatzeko

Joseba eta Nerea

Azken urteotan Usategietako igandea ospatzen den igande berrean izaten da Nafarroa Oinez, baina aurten Beran egingen denez, Usategietako Igandea aste bat aitzintzea erabaki dute antolatzaileek. Horrela, igande honetan, urriak 8, egingen da Usategietako igandea. Urteroko egitarau bera errepikatuko da. Goizean Usategietan barna bueltaxka egiteko aukera izanen da, eguraldiak laguntzen badu, eta arratsalderako hainbat ekitaldi antolatu dira. 5:30etan Josu Goiak eskultura bat inauguratuko du. Getan euskal mitologiaren inguruko antzerkia egingen da Arburua gibeletako aldean eta

7:30etik aitzinera musika izanen da plazan Trikidantz taldearen eskutik. Altxata Kultur Elkar- teak eta Andremari Dan- tza Taldeak barra para- tuko dute frontoian pin- txo, talo eta edariarekin.

GAZTEEN BESTA LARUNBATEAN

Azkeneko urteetako martxari segituz, aurten ere "Gazteen Eguna" izanen da Usategietako Igande bezperako larunbata. Joan den urteko arrakasta ikusita, pa- tata tortilla txapelketa egingen da arratsaldean. Ondotik, pintxo-jatea izanen da frontoian. Ko- adriela bakoitzak erama- ten duenarekin eta lehia- ketan aurkezten diren tortilla guztiekin afaria egingen da. Sagardo-ku-



Joan den urteko tortilla lehiaketak arrakasta ederra izan zuen.

ARTIBROKOA

pela ere paratuko dute frontoian. Joan nahi du- ten guztientzat irekia da- go. Arratsean berriz, kontzertua izanen da Herriko Ostatuan Ehiz- tari eta Urgabe talde- kin.

Nafarroako neska arpanlari hoberenak Etxalarkoak

Izaskun Ariztegi eta Lourdes Galarregi Na- farroako arpanlari txapeldunak izan ziren jo- an den irailaren 24an Uhartan ospatu zen Na- farroako nesken arpan- lari txapelketan. Lehen- biziko aldiz ateri ziren txapelketan baina biko- terik hoberena zirela erakutsi zuten, bigarren bikoteari bi korteko al- dea ateriz. Aisa jantzi

zuten txapela. Orain, Euskal Herriko txapel- ketan parte hartuko du- te larunbathonetan, Ara- ban, Nafarroako orde- z- kari gisa. Ea suertea du-

ten eta Euskal Herriko txapela ere herrira ekar- tzen duten.

Txapeldunei buruz- ko xehetasun gehiago kirol orrialdetan dituzue.

Iaz baino 9.000 euro gehiago ehizi postuen enkantean

Egin diren bi enkanteak kontuan hartuta, ehi- zako postuek diru-sarrera handia ekarri diote aurten Udaletxeari. Aurten joan den urtean baino 9.000 euro gehiago eskuratuko ditu udalak, 63.310 euro denetara. Eskaintza gehien eskuratu zuen postua, joan den urtean bezala, 13.a izan zen, 5.720 euro euroekin. Bigarren postu garestiena, sexta jaso zuen 24.a izan zen, 5.660 eurotan era- baki zen. Iaz bezala 12. eta 14. postuek ere pre- zio polita egin zuten. Enkantearen alderdirik na- barmenena lehenbiziko egunean bortz postu har- tu gabe gelditu zirela da, Usategien historian le- henbiziko aldiz.

Pitti
eskabaziloak
 Tel: 616 513 491

Mendiaketa etxea, 54 ZUBIETA

arkitektoak

ARKITEKTURA ETA HIRIGINTZA

ESTRUKTURAZKO PROIEKTUAK
 URBANIZAZIO PROIEKTUAK
 ETXEN BERRITZAZ
 GABEAK
 KONSULTAK
 INFOGRAFIA ETX

SANTIAGO 55 2ºB ELIZONDU TEL 948 581 931

XATURETXEA

JATETXEA
 T: 948 637 027 - LESAKA

IRU BIDE
 Energia - Asador

Bizkaia, 3 - LESAKA
 Tel: 948 637 127

ARANTZA

Eskulan ikastaroa hasteko asmoa dago hilabete honetan

Herriko gaztetxoak Igantzi eta Anizko bestetan herri kirol jaialdietan aritu dira

Nerea ALTZURI

Udazkeneko egunetan gaude. Urtaro polita da, inguruko kolorek nahiz aroaren goxotasunak hori horrela izatea bermatzen dute. Eurria egin du eta udazkeneko eguzki egunak ere izan ditugu urte sasoi hasieran. Eskularen ikastaroa abian jartzeko hilabetea ere hemen dugu. Normalean urriaren hasieran ikasturteari hasiera ematen zaio eta maiatza aldean akautzen da. Urtero-urtero eskulan berriak ikasten dituzten lagunek printzipioz hasteko intentzioa dute, oraindik data zehatzik ez bada ere. Pui irakasle izaten da urtez-urte eskulan ikastaldi honetan. Informazio gehiago izaten dugunean lerro hauen

bitartez adieraziko dugu.

Han-hemenka herri kirolean

Bestaz-besta ibili gara udan. Udazkenarekin batera lasaitu da bestetako giroa, baina oraindik leku batzuetako jaiak geratzen dira gozatzeko. Herriko bestetako egitarauetan kirolak bere tarte hartzen du. Gurean, herri kirolek arrakasta handia izaten dute. Herriko bestetan aritu ziren gaztetxoak. Irailaren 24an ere, Igantzi-ko San Migel bestetako herri kirol saioan Arantzako gaztetxoaren taldeak parte hartu zuen. Joan den igandean berriz Arantzako kirolari taldeak Basaburua taldea izan zuen aurkari Anizko bestetan.



ARGAZKIAK: XABIER ZUGARRAMURDI

Bi argazki haueta berriki sartu garen urtaroaren erretoak nabarmentzen dira. Batetik, udazkeneko ikuspegia duen irudia; bertetik, ehizi garaian sartu garaile eta, herrian mugimendua nabaritzen da.



PRIM, c.b.
Bizkortze Zentroa

- Kirol Fisioterapia
- Osteopatia
- Masaiak
- Trafiko istripuetan aholkularitza
- Istripu eta osasun aseguruak

Itzea 1, behea • Tel-Fax: 948 625206 • **BERA**
Colon Pas. 6 - atzea • Tel-Fax: 943 633050 • **IRUN**

LEGARRA

<ul style="list-style-type: none"> • EGUNKARIAK • ALDIZKARIAK • LIBURUAK • OPARIAK • TABAKOA 	<ul style="list-style-type: none"> • FOTOKOPIAK • ENKUADERNAZIOAK • PLASTIFIKAZIOAK • FAX PUBLIKOA
---	--

TESTU LIBURUAK ENKARGUZ

Tfnoa./Faxa: 948 63 70 30 • Albistur, 9 • **LESAKA**

IGANTZI

Jose Antonio Arrillaga eta Txuki irabazle 27. Artzain Zakur Lehiaketan

Gasna lehiaketako txapela Antxoneberriko Enkarni Etxeberriarentzat izan zen

ttipl-ttapa

San Migelen aitzineko asteburuan giroa berotzeko jarduerak antolatatu ziren. Igande goizean gasna lehiaketa izan zen herriko plazan. Guztira 11 gasna aurkeztu ziren, aitzineko urteetako kopuru bertsua. Txapela Antxoneberriko Enkarni Etxeberriaren gasnarentzat izan zen, bigarren saria Goiz Argi baserriko Amalia Seinenzat eta Argaldegarako Elena Reteig hirugarren saria lortu zuen.

Arratsaldean XXVII. Artzain Zakur Txapel-

keta jokatu zen Meakandiko zelaian. Zortzi zakurrek parte hartu zuten. Zozketak garrantzi handia izan zuen eta lehenbiziko hasi zirenak ez zuten batere lan errexa izan. Ardiak bizi biziak zeuden eta horren ondorioz, lehen zakur eta artzainek ez zuten gauza handirik lortu. Hala ere, ardiak nekatu eta goxatu ondotik erakustaldi polita ikusi zen.

Lehen probaren ondotik, Jose Antonio Arrillaga eta Txuki, Peio Pagarizabal eta Alai, Xabier Urien eta Txiki eta Mikel Aizpurua eta Be-



Artzain zakur lehiaketako irabazleak lanean eta gasna lehiaketako podiuma.

ti gelditu ziren bigarren probarako. Guttitan gertatzen den bezala, lau zakurrek helburua lortu zuten 6 minutuko mugan. Garbien aritu zirenak Jose Antonio Arri-

lagaren Txuki eta iazko txapeladuna Peio Pagarizabal Alai izan ziren. Epailerek eibartarren alde egin zuten eta Jose Antonio eta Txuki izendatu zituzten

igantziko XXVII. Artzain Zakur Txapelketako irabazleak. Aiakoa bigarren gelditu zen. Mikel Aizpurua eta Beti podiumeko hirugarren postua hartu zuten.

© 948 631462
Aitzate 1 - BERA

MERTZERIA
Leño
LENTZERIA

Tel: 948 627 514
Berrito Plaza, 10 - LESAKA

ERREKALDE
PLAZA KONKURTATUA

PAIZAK
KANTAK

Ongi pasa bestaki!

Tel: 948 630 259 BERA

USOA
nekazari kooperatiba

ganaduarentzat
pentsurik egokiena

Tel: 948 635 214 - ETXALAR

ERROTAR
harategia

Bertako produktuak

Eztegara, 3 - BERA
Tel/Faxa: 948 630 088

APARAN, S.A.
BRIKOLAIA eta ZURAK

- Melamina taulak
- Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
- Txapaz estalitako taulak
- Entzimerak
- Ate arruntak eta sukalde mobleendakoak
- Pintura eta bernizak
- Bainurako mobleak eta osagaiak
- KIT mobleak, esku-erremintak, etab...

Tel: 948 450 080
Fax: 948 450 334
DONEZTEBE

Ginko

M. Karmele Tolosa

Herriko aholkulari

Hazirik bildu udaberrian erretako

31760 Etxalar (Nafarroa)
Telefonoak:
817 350 025 - 867 694 867
e-posta: gume@ginko.es

ERREPIDEAK

Urtea akitu baino lehen eman nahi dituzte Igantzi eta Irun arteko N-121Ako lanak

Zati osoa 2009ko maiatzerako egingen omen da

ttipi-ttapa

Alvaro Miranda Nafarroako Herri Lan, Garraio eta Komunikabidetakako kontseilaria eta Javier Zuriarrain Gipuzkoako Diputazioko Bide Azpiegituretako diputatua Iruñean bildu ziren irailaren 22an.

Bertan aipatu zuten, urtea akatu baino lehen eman nahi dituzte Igantzi eta Irun arteko N-121A errepideko berritze lanak: Igantzi eta Bera arteko 7,9 kilometroko zatiaren erakuntza proiektua onartua dago; Bera eta Enderlatsa arteko 2 kilometro terdiko zatia urrian onartu nahi dute. Enderlatsa eta Irun arteko proiektua ere irail hondarrerako akatu nahi zuten Gipuzkoako Diputazioak. Proiektu honen



Helena Santesteban, Vicente Arotzena eta Juan Fermin Mixelena, Bera, Arantza eta Lesakako alkateak Herrilan departamentuko kontseilariaren eta zuzendari nagusiaren azalpenak aditu zituzten.

arabera, Gipuzkoako zatiko 6 kilometroen %60a bide berria izanen da, bi tunel egingen dira eta txirindularien-dako bidea ere egoki-

tuko da. Enderlatsako zubiari dagokionez, 13 milioiko aurrekontua izanen du eta erdibana ordainduko dute Nafarroako Gobernuak eta Gi-

puzkoako Diputazioak. Proiektua urrian onartzea espero da eta gainerako lanekin batera emanen da. Proiektuaren egilea, 2005eko Bia-

nako Printzea kultur saria eskuratu duen Javier Manterola arkitekto nafarra da.

Gipuzkoako Bide Azpiegituretako diputatuarekin bildu aitzinetik, Alvaro Miranda Bortzietako alkateekin elkartu zen, proiektuen egoera azaltzeko. Kontseilariak aipatu zuenez, lan guztiak 2009ko maiatzerako akautuko dira. Vicente Arotzena Arantzako alkatea baikor ageri zen bileraren ondok: «Lan guztiak akautzeko bi urte terdiko epea jami dute eta espero dugu hori betetzea, baina badakigu honelako gauzak nola izaten diren. Tarte horretan traba dexente izanen dira errepidean, baina gero denon onerako izanen da».

Zuk nahi duzuna ezpaduzu inun aurkitzen, galdetu nola konpondu dezakegun zure leku moldatze eta apaintzearen beharrak.

ingurulan

-Neurrira eginiko altzariak eta osagarriak, egurrakin, burniak...
-Inguru moldatze lan tikiak, zokalo, tarima, ate paratzeak. Erremateak...
-Kutzak, tximene buruak, betiko altzariak, neurrira eginak.
-Egurrezko armarrak eta bertzelako tallak.

Tlfnoa 661 086 206
joseba@ingurulan.com

BERA Zure inguruak kiese gezieta insektoz (xomorro, ziesorra, armiarma, kukuzo...) eta errotoi xagutzaz garbitu nahi baduzu, deitu! Termite eta Pijin tratamenduak

GOIEKO Industria Garbitasun Produktuak

Tel: 948 625 587 • Zalea, 42 A • BERA

bortzIRUDI
bortzirudi@telefonos.net

KARTELAK • KANDEAK • BIDERAK • TITXERROAK (Nahi duzun emari - dinarekin)
FOTODUPA DIGITALAK • KOLAJEAK • TITXI-BESTEAK • PLANOAK
ENGADENAZIOAK • PLASTIKAZIOAK • PEPESTIOAK • BULOGO MATERIALA
DISENU GRAFICOA • LOGOTIPOAK • ERROTUTIAK • INPRENTA

Ertegora: 26 Ekuinekoa Behea D • BERA • Tel-Faxo: 948 631 521

ARTEKARI TALDEA

ARTEKARITZA EKONOMIKOA ETA LABORALA

- Langile autonomoak
- Nekazariak eta mendi langileak
- Nominak eta Aseguro Sozialak
- Lan-Kontratutarako laguntzak
- Enpresa berriz ezeberdinen sortzea
- Diru-laguntza ezberdinak
- Kontabilitateak
- IVA eta IRPF
- Errenta aitopenen
- Eibarritasun eta jubilazio espedienteak
- Bidegaritasun planak eta aurrekontuak

artekari@artekari.com

LESAKA: Bittiria, 71-behea • Tel: 948 637 050 • Faxo: 948 637 404
BURLATA: La Viña, 4 • Tel: 948 133 328 • Faxo: 948 133 713

SUNBILLA

Urriaren 21ean eginen da Ulibeltzak elkarteko herri bazkaria

Txartelak salgai Mari Sol janaridendan, Itturburu eta Fondan, eta Maria Jesus harategian

Jalone OTXANDORENA

Datorren urriaren 21ean dagoeneko ohi-tura bihurtu den herri bazkaria egingen da. Ulibeltzak elkarteak antolatzen du eta aurreko urteetan izan duen arrakasta ikusita, aurten ere jende ugari izena ematea espero da. Bazkari honetara joateko txartelak dagoeneko salgai daude Mari Sol janaridendan, Maria Jesus harategian, eta Itturburu eta Fonda ostatueta. Bazkari menua hautatua da dagoeneko: ur-

daiazpikoa, zainzuriak bi saltsekin, pateak, piperr beteak, frituak, aretxe gisadua, goxua eta tarta izoztua. Ondotik kafea eta likoreak. Bazkariaren prezioa 23 eurokoa da. Bazkal ondotik dantzaldia izanen da. Gogoan hartu txartelak urriaren 15a arte egonen direla salgai.

Heldu eta gaztetxoek dantza ikastaroak

Ikasturte berriarekin batera hainbat kurtsori



Argazkia: Foto ZALDUA

Herriko bestetan erakustaldi polita eskaini zuen herriko dantza taldeak. Aurten goi-ikastaroa urriaren 4an hasiko da. Helduen asteazken gaueko 21:00etan izanen dute hitzordua eta gaztetxoek asteazken eguerdiko 14:30ean.

ematen zaie hasiera, eta horien artean dantza ikastaroei. Urriaren 4an izanen da hori.

Herriko bestetan eman ziguten erakustaldi polita ikusita, ziur batek baino gehiagok izena eman nahiko dute. Helduek gaueko 21:00etan frontoian dute hitzordua. Beraz, edozein asteazkenetan

gaueko ordu horretan azaltzea nahiko izanen du izena emateko. Gaztetxoak ere egun berean hasiko dira, baina hauek, eguerdiko 14:30etan.

Film laburraren jende hautaketa

Joan den irailaren 27an, gure herriko leku ezberdinetan grabatu-

ko den film laburraren-tzat jendea behar zela eta hautaketa-probak egin zituzten horretarako izena eman zuten herritarrek. Hurrengo alean emanen dizuegu castingean aukeratu eta film horretan parte hartuko duten herritarren izenak. Nork daki, agian hemendik Hollywoode-ra doaz eta!!!!

1951tik lantzeria-etxea
Casa Cambra

**MANTETAN ESKAINTZA
ZABALA**

albornozak · mantelak
edredoi nordikoak · kuxinak
ohe estalkiak · maindireak
toailak · edredoi-azal nordikoak

Tafalla, 13 · IRIUÑA · 948 230 634



BEINTZA-LABAIEN

Iturrondo elkarteak besta eguna antolatu du urriaren 7an

Arratsaldeko 5etatik aitzinera eskulangileak, aizkolariak, 300 lagunendako afaria eta dantzaldia Plazan

ttipi-ttapa

Iturrondo elkarteak, hainbat herritar eta udalaren laguntzarekin besta ederra antolatu du urriaren 7rako. Arratsaldeko 5etatik aitzinera hasiko dira ikuskitzuna. Lehenik zazpi eskulangile arituko dira plazan euren lanak erakusten (Florentino Ibarra, Miguel Urroz, Iñaki Gallo, Santiago Hualde, Juan Pedro Goñi, Bittoriano Arzuaga...).

Arratsaldeko 6etatik 8etara, aizkora probek hartuko dute txanda, eta bertzeak bertze Mikel Mindegia, kanakoa mozten arituko da. Apostua ere jokatu dute, Jose Antonio

Loiarte eta Antonio Jaunarenak, Donato eta Oihan Larretxea aita-semeen kontra. Herriko 4 bikote ere arituko dira (Jon Telletxea-Alejandro Mindegia, Jose Luis Telletxea-Tito Etxeberria, Jose Telletxea-Xabier Mindegia, Peio Telletxea-Jacinto Etxekolonea). Sei kanaerdikora lehia izanen dute. Zubiako Joaldunak ere ibiliko dira karrikaz karrika giroa animatzen.

Ortizal arratsaldeko 8ak aldera jarriko dute plazan larunbat arratsanean afalduko duten aretzea erretzen. Kanalean 300 kilo inguru izanen duen aretzea prestatuko dute eta oso-



Aizkolariak eta oso-osorik erreko den aretzea, besta eguneko protagonistak.

osorik erreko dute. Herriko bizpahiru lagun arituko dira erretzaile lanetan, laguntzaileak aparte, eta 20 ordu inguru eramanen omen die behar den bezala erretzeko.

Herritar gehienak ez ezik inguruko herrietatik ere jende andana hurbilduko da afarira urriaren 7an. Afarirako txartelak Iturrondo elkartearen eta Herriko Ostatuan salgai daude. Afal ondok, Trikidantz taldearekin gaupasa izanen da.

Abeltzaintza azpiegitura lanak egingen dira laster

t.t.

Larunbateko besta eguna antolatzen buru belarri badira ere, Beintza-Labaienen abeltzaintza azpiegitura berriak eraikitzeke edo moldatzeko lanak ere egingen dituzte abudo. Honela, Ameztieta eta Saldias atean dagoen Aieleta alderdian, pista bat zo-

laberrituko da. Horretarako, 800 metroan hormigoia emanen da. Lotzabianen, berriz, aziendak pasatzea galeraziko duten hesi kanadiarrak jarriko dira eta herriaren gaineko aldean, Armalaundi eta Arbasa inguruan, ura eraman eta aziendek edateko hiru aska egin nahi dira.

PIKABEA
harategia
janariak

7 BERA • 948 631 204

udana
salaziones

UNE-EN-ISO 9001
IAC
SISTEMA DE GESTIÓN DE CALIDAD CERTIFICADO
SCC-02-0199

**Inportaziozko lehen kalitateko bakailu gazitua
Bakailu gezatua eta kongelatua, erabiltzeko prest**

Akalaga ind. • Banarta, 8 - 23. pabillola • LESAKA • Tel. 948 631536 • Fax: 948 631550

ZUBIETA

Joaldun zaharrak omenduko dituzte Euskararen Egunean

Urriaren 7ko besta egunean hainbat ekitaldi izanen dira

Leire ORTUOSTE

Larunbat honetan, urriaren 7an, ospatuko da azken urteetan gero eta indar gehiago hartzen ari den Euskararen Eguna. Horretarako egitarau zabala prestatu da, eta aurten, omenaldia eskaini nahi zaie herriko joaldun zaharrei. Goizeko 10:30ean herriko artisauen lanak ikusteko modua izanen da plaza inguruan. 12:00etan Aizkora apostua izanen da: Juan Luis (Seroinea) eta Mikel (Palazioa), Josefa (Domintxi) eta Patxi (Ikazpe)-ren aurka arituko dira. Ondotik, joaldunen ibilaldia izanen da herrian barrena eta 75 urtetik gorako joaldunei omenaldia egingen zaie. Eguerdiaren Herriko Etxeko estalpean bazkaria



ARTIBOROA

Joaldunek ohiko ibilbidea egingen dute Euskararen Egunean.

izanen da. Arratsaldeko 18:00etan haurrentzako Eriz magoaren ikuskizuna eta 20:00etan Jaione Olazabal eta Jon kantariarekin kantu zaharren emanaldia izanen da. Egu-

nari amaiera ona emateko, gauerditik aitzinera dantzaldia izanen da Etxabe anaiak taldearekin.

Ea jendea animatzen den baserritar jantziarekin ateratzera.

Eskulan tailerra urrian hasiko da

Urtero bezala eskulanen tailerra abiatuko da hilabete honetan. Irakaslea Pui Urtaşun izanen da.

ITUREN

Aurtizko Ostatua itxi dute berriz

Arkaitz Mindegia

Irailaren 10ean Aurtizko ostatuak berriz ere ateak itxi zituen. Ez dakigu oraindik zer gertatuko den ostatuarekin, baina pena handia hartu zuten herritarrek, bertze behin herria ostaturik gabe ikustean. Ea bertze norbait animatzen den ostatua marxan jartzen.

Aerobik ikastaroa hasi da

Aste honetan hasiera eman zaio aerobik ikastaroari. Astearte eta ortzegunetan izanen da Herriko Etxeko ganbaran arratseko 20:00etatik 21:00etara. Norbaitek apuntatu nahi baldin badu, Herriko Etxeko ganbarara ager dadila astearte eta ortzegunetan.

BEKO
Lore eta landareak
Frain auzoa - LESAKA
Tfnoa: 948 637826

Jose I. Gonzalez Enguita
Pintura lanak onakorreran
Tel: 948 225 400
948 630 603
Bideaz 49 - 1. ezp
31780 BERA

Pinturas Pikabea Molinero
PINTURAK
Esmalteak · Bernizak · Lasurea urpintura · Margo klase guziak
BONDEX urpintura · Esmaltea eta pintura plastiko ekologikoa
2.000 kolore baino gehiago lortzen ahal duen makina
10 minututan zuk nahi duzun kolorea
Zelaiñ auzoa, Aceralia fabrikaren parean - BERA
TEL: 948 630 240 · MUG: 627 622 333

GOIZUETA

Ustegabeen hartu ditu herritar gehienak Dionisio Txoperenaren heriotzak

«Munduko artzairik famosoena» irailaren 14an hil zen Kalifornian 52 urterekin

Esteban AROTZENA

«Hi izain haiz seguru aski munduko artzairik famosoa» esan zion herritar batek Dionisio Txoperenari orain dela lau urte. Orduan Dionisio hedabidez hedabide zebilen Ameriketako telefono konpainia handienaren publizitate kanpainako protagonista bihurtu zutelako.

Euskal Herrian oso ezagun egin zen Txoperena garai horretan, eta horrexegatik, oihartzun handia izan du bere heriotzak. Herritar gehie-

nak ustekabeen hartu ditu berri trixte honek, baina bere hurbilenekoek bazekiten aspaltxoan gaixo antzean zegoela Dionisio. Hala ere, gaixotasunak gaixotasun, ondorekoak uzteko hainbesteko sasoia eman zion naturak «artzaihaundiari», haur bixkiak erditzear baitago bere bikote laguna.

Atzera begirada bat botatuz esan, Ttipi-Ttapa eman zuela aurrena Txoperenak Ameriketara lortutako arrakastaren berri, 2001eko martxo-



UTZIANO ARGAZKIA

Gazte-gaztetik joanda Txoperenatarren bost senide bizi izan dira oraintxe arte Ipar Amerikan. Ezkerretik eskuinera, Jose Ignacio, Miel Anton, Jexux Mari, Javier Mari eta Dionisio zena.

an hain zuzen. Ondoren, ETBkeraman zuen bere zenbait programatara, eta hortik aurrera Euskal Herriko hedabide guziak eta estatuko beste hainbestek elkarriketatuz zuten Dionisio. Fama hori arrontzoki eraman zuen goizuetarrak, gizatasun eta grazi haundiko gizona baitzen berez. Goian bego Dionisio Txoperena

«munduko artzairik famosoa».

Haur-parke berritua

Ederra zinez udalak plazan paratu duen haurren parke berria. Lehengo zahartuxea bazegoen ere, aprobetxatzeko moduko osagaiak bazeuzkan oraindik, eta hauek eskolako patioan jarri dituzte.

Zaharren eguna urriaren 8an

Umore Onak antolatua, urriaren 8an ospatuko da. Mus eta truk txapelketek, pilota partidek, Xebastian Lizaso eta Sorozabal bertsolariak eta elkartean egiten den bazkariak ospatuko dute herriko zaharrek hainbeste estimatzen duten festa haundi hau.

ARESO

Saneamendua eta ur-hodiak berritu eta kableak lurperatuko dituzte

Pagozelai-Goikok egingen ditu obrak

Juana Mari SAIZAR

Azkenean, hasierako prezioa baino merkeago esleitu zaizkio obrak Pagozelai-Goizabal enpresari, 727.000 euroan (hasierako aurrekontua 790.097 eurokoa zen). Orain, kaleak berritu bidenabar, argindar eta telefonoen kableak lurpean sartuko dituzte. Saneamendu-sarea ere

egokituko da: alde batetik etxeetako ur zikinak bilduko dituen hodi-sarea, eta bestetik, euriaren urak bilduko dituen sarea ere berrituko da osotara. Nafarroako Gobernua %70a inguru subentzionatuko du.

Pistak eta bideak

Iruñegia, Felipebordea eta Belaku aldeko bi-

deak asfaltatuko dira eta mendiko 3-4 bordetara pista berria irekiko da. Udalak 71.020 euroko laguntza hartuko du 118.368 euroko aurrekontu batetik.

Tximistak

Irailaren 23an izugarriko ekaitza sortu zen eta tximista batek Ustakifleneko borda parean postea eta argi in-



ARGAZKIA: JUANA MARI

Mikel Olazabal eta Unai Onsalok Diario Vasco torneoan parte hartuko dute. Mikel Olazabalek iaz parte hartu eta aurrera samar gelditu zenez, torneoaren erdi aldera hasiko da jokatzeko, eta Unai hasieratik jokatu beharko du.

darraren kablea bota zituen. Sei orduz argirik gabe egon zen herria. Egun horretan egitekoa

zen ehiza postuen sustu-basta bertan behera utzi zuten, eta joan den larunbatean egin zen.



tapa

06

moda

udazken-negua

IPINGI

arropadenda



- Arropa formalak eta informalak
- Konplementuak
- Bitxiak
- Eskulangintzako materialak

Santiago 88, Elizondo • Tfnoa: 948580939

MINIMALISMOA NAGUSI EMAKUMEZKOEN UDAZKEN-NEGU- K O MODAN

Itxura berria izateko ez duzu zure loka goitik behera aldatu behar. Piezak minimalismoan oinarritzen dira, baina ez da 90.hamarkadako minimalismo berean, ezberdintasun batzurekin dator, ordukoa nahiko makala eta desegituratu xamarra baitzen.

80. hamarkadako fluor koloreak eta beltza nahasten dituzten soineko eta galtzak nabarmenduko dira.

Beroki luzeak nahiz motzak, gehienak trench modukoak dira, gerrikoarekin gorputzean estutzen direnak eta kutsu militarrekin.

Artilea bezalako ehunak indar handiarekin itzultzen dira eta pontxoa eta txanodun jertsetan ikus ditzakegu. Errusia eta Andeetan inspiratutako moda indartsu dator, etnikoa eta naturala.



OSIÑA
Jantzidenda
Bitxiak

Abiatu: 3-behara • LESAKA • Tfnoa: 948 837 951

Lulu

NEURRI
HAUNDIAK
70a arte

Hondarbia, 15
IRUN
943.616.165

Kolore konbinazio ezberdinak



Denboraldi honetan laranja eta morea nagusituko dira, hala ere aukera zabala izanen da berdea, horia, berde lehorrak, gorriak... Konbinazio ezberdinak ikusiko dira, arrosa bizia gorriarekin, grisa urdinarekin, beltza grisekin...Gauzez ordea, tonu metalikoak.

MAKILLAJEA ETA ILEA

Aurpegiko naturaltasuna eta freskura dira nagusi makillajeon, eta horretarako, marroia, terrakota, arrosa eta korlaren antzeko tonuak dira gehien ikusiko ditugunak. Begietarako ongi ematen duen gama erakargarria da baina, batez ere, masailentzako. Indarra begietan ikusiko da, tonu keztatu eta sakonekin pintatuko dira (morea, ubela, berenjena, terrakota) eta, gauean batez ere, betile kixkurrekin batera eramanen dira. Ezpainetan distira da ikusiko dena.


Egunez adatsak nagusituko dira, meleanak. Adats solteak, leunak edo arinki ondulatuak. Gauerako orrazkera bukatu gabeak eta puskatuak proposatzen dituzte.



Orrazkera informalak nagusituko dira

OINETAKOAK

Oinetakoek estetikoki erakarri behar digute, neguko zorrotasuna ahaztea lortzen duten koloreak erabiliko dira, estilo maskulinoa edo uniformea. 50. eta 60. hamarkadetako eragina nabarrituko da emakumeetan, takoi altuak eta karratuak, apaingarri handiak, grabatu eta bordatuak.



Kolore bixiak neguan ere

ILEADAINDEGIA

YOAN

EDERTASUNERKO AIRETOKA

- Luzapenak
- Ile-tratamenduak
- Behin betiko alisatua
- Solarium
- Estetika

Bidasoa, 8 - 31780 BERA (Nafarroa)
Tfnoa: 948 63 01 77

MIRARI
PREMAMA

Zitaz il eder jartzeko behar duzun gutia daukagu!

C/BERAPIO NUGICA Nº 14 • W 943 618886 • IRUN

Alustiza

- Lurritan sarratsak
- Modak konplexuak
- Atze
- Oinetakoak

KARRIKA NAUSIA, 12 • DONEZTEBE • TFNOA: 948 450 113

HONORIO TABERNA
GIZAKIEN ETA EMAKUMEEN DAKO BOUTIQUE
Merkatareraren sarrera 23 - Donostia - 48102

DIESEL
JUAN J. PIKABEA

Arropa konfekzioak
Senargaienezako trajeak
Gizonendako jostungintza
Egindako trajetan aukera zabala
Galtzak 70 neurria bitarte
Atorrak 54 neurria bitarte
Jertseak ere taila handiak

Ameztieta z/g.
DONEZTEBE
948 451 670

BELZUNEGUI
Desde 1901

Jaiate Urrutia 44, ELIZONDO • Tfnoaz 948 580 056

MERCHE
MODA HOMBRE

Serapio Mujika, 11 - 20302 IRUN - Tel: 943 612 626

CAPELETTI
Mendibil Merkatal Zentrua
20302 IRUN • Tfnoa: 943 624 672



GIZONEZKOAK

Gizonezkoen modaren klabeak arrakasta klasikoak, grisa, beltza ausarta eta estilo militarra dira udazken neguko modan.

Arrakasta klasikoak; sustrai tradizionalak dituen joera bat da baina interpretazio gazteago batekin dator: orain kapak, silueta meheak eta estanpatu nahasketak erabiltzen dira.

sargazko galtzak, v itxurako lepoa duten jertseak, korbatak eta bufandak zaku estanpatuekin konbinatzeko zoragarriak dira.

Militar eraginak gizonezkoen modan zirrara egin jarraitzen du. Joera honetako oinarritzko piezak, itxura fisikoari garrantzi gehiago emateko garatu dira. Sargazko ehunek eta ehun sendotuek garrantzia hartuko dute. Ageriko sakelek, botoiek, sorbaldako edo txarretelek eta diseinu militarrek erakargarritasun handia daukate. Galtza estu eta funtzionalak, hegazkinlari motako zamarrak, beroki luze nahiz motzak eta marinela estilo berokiaren bariazioak dira denboraldi honetako klabeak..


Estilo militarra nagusituko da




ORRAZKERA

Orain arte metxak emakumeen kapritxo bat zen baina gaur egun gizonezkoak gero eta ausartagoak dira ile mozketan eta orrazkeretan.

Gizonezkoetan metxak ile motzetan dotoreago geratzen dira. Melena eramaten baduzu, ez aukeratu berezkoa duzun koloretik oso ezberdin dena.




Metxak eramanezkoak dira ile motze-



BARRUKO ARROPA

Orain, gizonak ez dio inori bere barneko arropa erosten uzten. Inork baino hobea, bere beharrak ezagutzen ditu eta patroi eroso, kolore dibertigarri eta estanpatu ausarteko markak aukeratzen dituzte harro erakusteko.

Modelorik gustokoenak *boxerra* (labur eta estuak), *truncka* (emakumeen kulero laburren antzekoak, hanka guzia agerian uzten duena), eta *slipa* dira.



Kolore dibertigarri -

MARIA
ileapaindegia

Maria 948 450 922
Saioa 636 267 369

TABERNA ZAHARRA

Gizon eta emakumeendako arropadenda
Kortinak eta etxerako arropak

Merkatarion Karrika 11 • DONEZTEBE • Tfnoa: 948 450 007



BL
arropa-denda

Neska eta mutientzako moda gaztea

urte osoan Bortzirriak eta Malerrekako jendearentzat %10 eko deskontuak

Ibardingoa gaina, 30 • BERRA

IBARROLA
Haurrendako arropa
0-14 urte

Parrota kalea 6 • Donostia
948 400 463

MARI CARMEN
Arropa KONFEKZIOAK

Haur eta helduentzako arropetan espezializatuak

Brasil Inarte 22
(Antzokia Ondoa)
ELIZONDO
Mara 948 540 883

mirenzu

- **Markarik onenak:** Boboli, schuss, Paz Rodriguez, Chupa chups, akr
- **30 marka baino gehiago, prezio guztietakoa**
- **Bertan eskuz egindako soinekoak**

Sorapio Nagua 15
943 818 033 • MON
Ordizta kalea 5 • 943 881 278 • ORDIZTA



HAURRENTZAKO MODA

Kamiseta eta galtzen koloreak modu egokian nahasten dira eta estanpatu eta farfailen 50-60.hamarkadetako erreibindikazioei erreferentzia egiten diete. Aukeratutako ehunak bereziki leunak eta erosoak dira eta puntuzko jantziak galtza bakero urratu eta desgastatuekin eramango dira.

Neska nahiz mutilek, betiko estiloari ihes egiten diote eta egungo mozketak presente daude. Jantziak gainezartzen dira, jakak txapa ezberdinekin apaintzen dira eta txanoak ez dira falta. Look moderno hau panazko galtza eta gonekin osatzen da.

Loreen irudiak eta blusa estanpa-



Kolore eta estanpatuak

Loreen irudiak dira ezaugarri nagusietariko bat, blusatan estanpatuak eta berokien azpikoetan estanpatuak ikusiko dira. Blusak soinekoekin eta galtzekin konbinatu daitezke. Geihen ikusiko diren koloreak berdea, marroia, turkesa eta fuk-sia dira bertzeak bertze. Materialei dagokionez, pana, mikrofibra, ehun metalizatuak eta fantasiako koloreak dituzten larruak erabiliko dira.

Oinetakoak

Haurren modan forma eta erosotasunari garrantzi handia ematen zaio. Horrela, punta indartsuak dituzten bota eta botin erosoak eta estilo oso modernokoak eramango dira.

Fantasiako estanpatuak ez dute hutsik eginen oinetakoetan ere.



erosotasunak garrantzi handia haurren zapate-

Zapatadenda.
Kalotxa.
Osagarriak.
Konponketak.

Legia 42 Bura 27000 Returra 948 83158

FANTXIKE
Mertzaria · Opariak · Lentzeria
HAUR, GAZTE ETA HELDUEN ARROPA
Jaime Urrutia, 15 Elizondo Tfnoa: 948 580 312

BIOK BENTA

IBARDIN
Egunero 8:30-19:00 irekita
500 m² saltokia
AZKEN MODA

REPLAY

Pana, mikrofibra eta ehun metaliza-



duve
 ileapaindegia
 estetika

BERA
 948 631493 (hasieratik)
 948 630309 (amaitzeko)

06
moda
 udazken-negua

bixkak
 0100000000

Tfnoa: 948 638 110
 Arretxea, 7 • LESAKA

LE NOUVEAU PARFUM DE CHANEL

ALLURE
 SENSUELLE

CHANEL

BIOK BENTA
 IBARDIN

Egunero 8:30-19:00 irekita

CASA COSTIZ

ZAPATADENDA • TABAKODENDA
 LIBURUNDENDA • PAPERTEGIA

Parrokia 17 • DONEZTEBE
 Tfnoa eta Faxe: 948 450 289
 costiz@teleline.es

NIVAL

txinelka

ZAPATADENDA

Osagarriak • Konponketak

Arretxea 20, behea • LESAKA • Tfnoa: 948 637 594

hurrengo gehigarrietan...
 feriak, eraikuntza,
 gastronomia...
PUBLIZIDADEA jarri nahi
 baduzu: 948 63 54 58

LEITZA

Herriko pilota txapelketako sei finalak jokatu ziren irailaren 24an

Abel Barriolak eta Ibai eta Oinatz Bengoetxeak eman zituzten sariak

ttipl-ttapa

Irailaren 24an jokatu ziren Amazabal pilotalekuan pilota eskolako Udalaren, Nafarroako Federazioaren eta Goiko eraikuntza enpresaren laguntzaz antolatutako pilota txapelketaren finalak. Ikusmin handia piztu zuten final hauek, antolatzaileek uste baino askoz handiagoa, izan ere 500 ikusle inguruk bete baitzituzten frontoiko harmailak.

Benjamin mailan, Mikel Sagastibelza E. eta Iker Iribarriak 18 eta 15 irabazi zieten Mikel Sagastibelza L. eta Iñigo Larurteri.

Alebinetan, Jon Iparagirre eta Erik Jarak 18 eta 7 irabazi zieten Arkaitz Untxalo eta Iñaki Bernateri.

Infantil mailakoa izan zen finalik orekatuena. Azkenean, Iratitz Arrieta eta Txomin Zinkunegik 18 eta 16 irabazi zieten, Jon Idoarte eta Jon Jaunarenari.

Kadete mailan, Iñigo



UTZIANO ARGAZKIA

Oinatz Bengoetxeak eta Patxi Ruizek irabazi dute Logroñoko San Mateoetako txapelketa

Oinatz Bengoetxea herritarra eta Patxi Ruizek irabazi dute udako azken pilota torneo garrantzitsua, Logroñoko San Mateo lehiaketa. Finalean, 22-14 irabazi zieten Xala eta Pascual-i. Ruiz izendatu zuten txapelketako pilotari onena, baina Oinatzek handien artean lekua duela erakutsi zuen.

Aurtenetxe eta Ander Olalde 22 eta 16 irabazi zieten Aritz Sagastibelza eta Eneko Perosanz-i.

Jubeniletan, Hodel Iturriotz eta Eder Ibarra izan ziren txapelketa irabazleak, Xabier Andreu eta Alejandro Nublari 22 eta 15

irabazi ondotik.

Senior mailan azkenik, Mikel Olazabal eta Beñat Mitxelena 22 eta 12 irabazi zieten Jurgi Larrañaga eta Igor Baez-i. Azken markagailuak horrelakorik erakusten ez badu ere, partida gogorra eta oreka-

tua izan zen. Lehendabiziko zatian, batez ere, hainbat berdinketa izan ziren.

Finalak jokatu ondotik, ikusleen artean zeuden Abel Barriolak, Ibai Bengoetxeak eta Oinatz Bengoetxeak eman zituzten sariak.

FLASH

Zolaberritze lanak 2005-08 Azpiegitura Planean

Nafarroako Gobernuak zenbait inbertsio onartu ditu 2005-08 Lau Urteko Azpiegitura Planean. Zehazki, Osasun Zentrorra doan kalea eta Manuel Lasarte eta Elbarren kaleak zolaberritzeko 49.690,20 euroko laguntza eman du, 70.986 euroko aurrekontu batetik. Oso hondatuak dauden lekuetan zuloak estaliko dira lehenik eta 5 cm. loditasuna duen kapa emanen da gero. Elbarren eta osasun zentrorako kalean euritako urarentzat isurbideak ere egingen dira.

Batukada Gaztetxean

Hiru egunez perkusio ikastaroa egin zuten Ateka Beltza Gaztetxean eta hor ikasitakoarekin batukada emanaldia eskaini zuten gazteek irailaren 23an kalez kale.

Kiroldegian ere ikasturte berria

Udako geldialdiaren ondotik berriz ere hasiak dira kiroldegiko ikastaroak: pilates, mantimendu gimnasia, haurren karatea, aerobic, step, GAZB eta GAZB-batuka klaseak emanen dira.

ERROTALDE BIDE-KLUBA
 Bideak 100 1000 LEKUMAKOAK
 Telefonoa 948 50 73 46 - 419 07 08 79

ESKU LIBREKO TELEFONOEN INSTALAZIOA

Aurkeztutakoak 18:00-21:00
 Asteartetik ostiralera 10:00-13:00 / 17:15-20:45
 Larunbatetan 10:00-14:00 / 18:00-22:00

luis cestau baraibar arkitekto teknikoa leitza 607204485

lucésba @ msn.com

Ark_b arkitektura bulegoa

Celia Lana Ranz Erakuntza Hirigintza Udai-oholkularitza

Huarte Gotzail 7 - 31860 Leitza - 645006478 tel

BAZTAN

Behi gorrien XIX. lehiaketara 371 buru aurkeztu ziren

Indart Anaiak izan ziren txapelketako irabazle nagusiak 9 sarirekin

Maite Oteiza

Arrakastatsua izan zen irailaren 23 eta 24an Elizondon egin zen Txapelketa. Aspaldian Merkato Plaza ez zuen hainbertze jenderik bildu. Behi buruen aldetik ere kopuru ederra bildu zen, guztira 371, 38 etxaldetatik etorriak: 21 Nafarroatik, 6 Gipuzkoatik, 9 Bizkaitik eta 2 Arabatik. Elizondora asteburu pasa etorri zirenak ez zuten akatsik egin eta goi mailako txapelketa ikusi ahal izan zuten. 11 sailetan, 8 uruxenak eta 3 idisko-enak, 6.000 euro banatu ziren eta horiez gain bertze 9 sari berezi.

BEDERATZI SARI INDART ANAIENTZAT

Asteburuko irabazle handiak Legasako Indart Anaiak izan ziren, 9 sarirekin: uruxetan, 12 eta 18 hilabete arteko, 18 eta 24 hilabete arteko eta 2 eta 3 urte arteko lehen sariak eskuratu zituzten, baita 3

eta 4 urte arteko, 6 eta 8 urte arteko eta 8 urtetik goitiko umatuen lehen sariak ere. Idiskoetan, 2 eta 4 urte arteko eta 4 urtetik goitiko lehen saria eskuratu zuten. Gainera, loterik onena ere Legasakoena izan zen. Iurretatik etorritako Jon Bikandiren buruek ere emaitza ona izan zuten 6 sari eskuratu. Baztango abeltzainek ere ez ziren batere gaizki ibili. Erratzuko Juan Jose Iñarreak 8 eta 12 hilabete arteko uruxen laugarren saria lortu zuen; Arizkungo M^a Isabel Agirrek 12 eta 18 hilabete arteko uruxen bigarren saria; Gartzaingo Maria Jesus Etxandik, 4 urte baino zaharragoko idiskoan laugarren saria, buru ederrenaren saria, eta Baztango abeltzain hoberenaren saria; Iruriko Miguel Angel Maritorenak behi zaharrenaren saria eta Lekarozko Bautista Iturririak abeltzain zaharrenaren saria.



ARGAZKIC: MAITE OTEIZA

Hainbat herrialdeetatik ekarritako behi-buruak ikusi ziren Elizondon.

«Xubit» zenari omenaldia egingen diote urriaren 7an Baztango futbolari ohiek prestatu dute

T.T.

Baztan futbol taldeko jokalaririk ohiek antolatuta omenaldia eskainiko zaio larunbat honetan, urriaren 7an, Jose Mari Santesteban «Xubit» zenari.

Goizeko 11:00etan, Giltxaurdin futbol partidak jokatuko dira Baztan futbol taldeko entrenatzaile eta zuzendaritza batzordeko kide izandakoa gogoratzeko. Baztan Futbol taldean aritu den edozeinek parte hartzen ahal du. 14:00etan zikiro-jatea izanen da nahi duenarentzat. Bai partidarako eta baita zikiorako ere, Futbolin ostatuan eman behar da izena. Zikiro-jaterako sarrera 15 euro kostako da. 16:00etan arratsalde soinu izanen da.

ANTXITONEA
Trinketea

Jatetxea - Ostalua
Hotela - Trinketea

Menu Bereziak

Braulio Inarrieta karrika
ELIZONDO

Tel: 948 581 807 - 948 581 853

PERSIANAS TOLDOS BAZTAN

TOLDOAK salmenta-konponketa-alokairua-errotulazioa
MOSKITERAK-PERTSIANAK motorizatuak-venecianak
PVCzko LEIHO eta ITXITURAK

Tel-Fax: 948 631 003
Bidasoa, 66 behea - BERA



NAFARROAKO LARRIALDIETAKO AGENTZIA


MODERNIZATU GARA ZURE SEGURTASUNA HANDITZEKO



Nafarroako Larrialdietako Agentzia-112 erakunde berri bat da, hemendik aurrera Nafarroako Gobernuaren menpeko hainbat zerbitzu operatibo bere baitan bilduko dituena, hala babes zibilekoak (SOS Nafarroa) nola prebentzio, suitzaltze eta salbamendukoak.

Giza baliabideak eta baliabide materialak egitura modernoagoan batu ditugu, zure segurtasuna handitzeko, betiere herri-tarroi laguntza eraginkor-rrago eta kalitatez hobea emateko ahalegin etengabe-
bean.

Gogoan hartu, larrialdian, deitu 112ra.



Nafarroako
Gobernua

BAZTAN

Gartzaingo bestak lau egunez, urriaren 11tik 14ra

Larunbatean Aixtei eta Hiruak Baten arteko herri kirol saioa izanen da

Asteazkena 11 BEZPERA

12:00etan: Txupinazoa eta ondotik txistulariek itzulia emanen dute bestak hasteko. 16:00etan: herrikoen arteko duatloio desafioa. 21:00etan: Baztan Zopak frontonian Fanfarrea eta Txalpartak girotuak. Gaupasa MIKEL SALABERRIrekin. Goizaldera irauten dutenendako gosaria Zulo Beltz elkartearen.

Ortzeguna 12 PILARIKA EGUNE

10:00etan: Diana eta argi soinuak. 12:00etan: Meza Ariztegiko ermitan eta gero aperitiboa. 18:00etan: Mus txapelketa. 20:00etan: dantzaldia SALABERRIrekin. 21:30etan: Mutil dantzak eta Baztango Gaiteroak, ondotik gazte afafransenen. 0:00etatik aitzinera: Gaupasa SALABERRIrekin.

Ortzirelia 13 HAURREN EGUNE

10:00etan: Diana, hauek xildu bezain laster buel-



UTZIMAK ARGAZKIA

Pilarika eguneko mus txapelketako sariak Herritarren Egunean emanen dira.

ta erdia eta lo segitu inderrak hartzeko. 12:00etan: Bailegira abietiko gara han bazkaltzeko. 17:00etan: Herriko gaztetxoendako KULKI. Ondotik merendua eta txokolata denendako. 19:00etan: kantaldia ITZELAREKIN (Baztango Udalak lagundua). 21:30ean: Mutil Dantzak eta Gaiteroak. 0:00etatik aitzinera: dantzal-

dia SALABERRIrekin.

Launbetea 14 HERRITARREN EGUNE

8:00etan: alkoholemia kontrola plazan, gehien maten duenak gosaria debalde izanen du. 9:00etan: Gosaria Fransene ostatuan. 11:00etan: Herri Kirolak, Aixtei vs Hiruak Bat (Gartzain, Etxarri, Aizano).

14:00etan: Zikiro jatea, eta trofeo banaketa: musseko txapeldunentzat, herri kiroletan irabazten duenarentzat, eta duatloiko txapeldunentzat. 20:00etan: dantzaldia FRANZISKOREKIN, ondotik mutil dantzak eta pintxoak indar berritzeko. 00:00etatik aitzinera: dantzaldia FRANZISKOREKIN. 5:00etan: Gaixoa Ni eta

FLASH

Maite Oteiza ttipi-ttapako berriemaile

Maite Oteiza iruritarra da Baztango berriemaile berria. Ttipi-Ttapan zerbait agertu nahi baduzu deitu 645 717325 telefonora edo idatzi ttipibaztan@euskalerria.org helbide elektronikora.

Elbeteko bestetako zenbaki sarituak

Elbeteko bestetan hiru sari zozketatu zituzten. Lehenbiziko saria, 15 pulgadako TFT telebisita bat, 5148 zenbakari egokitu zaio; bigarren saria, DVD bat, 5850 zenbakari eta hirugarren saria, Aubitxiako bigasna, 1002 zenbakari.

Ikastaroak

Ikasturte honetan hainbat ikastaro antolatuta dira Baztanen: Iruritan aerobic ikastaroa egingen da (Silvia, 687726124), baita trikitixa eta pandereta ikastaroa ere (Cristina Urtasun eta Maite Oteiza). Elbeten, ehoziri eta bordatuen ikastaroa egingen da (948 581131) eta Elizondoko Arizkunenean, euskal dantzak emanen dirgoizeko 11etan (627 063512). Elizondoko igerilekuan ere hainbat ikastaro emanen dira.

MENDI
ostatua

Santiago 25
948 580 313
ELIZONDO

MENDIALDE
Jatetxea

T: 948 453 060
N: 121-8,66 km
AMAIUR

J.RAMOS
zolak akutzilatuz eta
barnizatzen dittuz

Phone 948 631 342 BERRA - Phone 948 637 172 LESAKA

ITURRALDE
pvc & aluminio

☎ 667 264 025 • 948 581 967
✉ maxene@terra.es

Carlos
Garaikoetxea
Etxenike
abokatu

948 581 408
948 580 433
Frantziako etorb. 12
Ametzalde 30
ELBETE

ZUGARRAMURDI

Hamabortz lagunek parte hartu dute turismo ikastaroan

Bartzelonan aste hondar honetan eginen den Sorginkeriaren Nazioarteko Ferian izanen da herria

Margari eta Koro

Herriko Udalak antolatutako, hamabortz lagun izan dira turismoarekin zerikusia daukan ikastaroa hartzen. Ikastaroa Ospitalean eman da, irailaren 18tik 28ra, eta bereziki bi gai ikusi ziren: alde batetik erakutsi nola antolatzen ahal den turismoa gure inguru hauetan (proiektu berriak martxan jarzea barne), eta bertze aldetik, gidari gisa lan egiteko behar diren eza-gupenak ikasi.

Kontutan hartuz gure bazter hauetara hur-

biltzen den turista eta bisitari kopurua eta hemen ditugun baliabideak (lezeak, errota, monastegia, laister Sorginkeriaren Museoa...) bixtan da zenbat eta jendea hobekiago prestatua izan orduan eta eskeintza hobea emanen dugula, eta batez ere hori izan da ikastaro hunen helburua.

Zugarramurdik Bartzelonako Sorginkeriaren Nazioarteko Ferian parte hartuko du

Bartzelonan egin beha-



ARGAZKI: MARGARI

Sandia bitxia Domixteneko Bordan

Argazki huntan ageri den borobil berezi hau ez da apaingarri pullit bat, sandia bat da. Domixteneko-bordako baratzean bildua da eta harriturik utzi digute azalean erakusten dituen marka arraroak. Batzuk diote extraterrestrek utzitako mezu bat iduri duela, bertze batzuk bare artista baten errestoak direla... gauza da izigarri bitxia dela.

rra den "Sorginkeriaren Nazioarteko Ferian" Zugarramurdik toki bat izanen du.

Feria hau urriaren 7 eta 8an ospatuko da Sant Joan les Fons herrian, eta han egoteko gonbitea jaso du bai Udalak baita Akelarre Elkarteak ere. Gauza interesgarria izanen delakoan, bortz lagun ganen dira Katalunia aldera gure historia eta ixtorioak erakustera. Itzulian kontatzen digutena kontatuko dizuegu zuei ere.

BAZTAN

Pelikula bateko irudiak hartu dituzte Erratzun

Maite OTEIZA

Azken hilabete honetan Erratzuko ostia, berriz bere ateak ireki ditu ez-jatetxe moduan baizik eta pelikula bat grabatzeko "Escalofrio", beldurrezko filma Isidro Ortizek zuzendua.

Bere protagonistak Julio Valverde eta Jimmy Barnatan "Los Serrano"ko Chuky in-

terpretatzen duen aktorea dira.

Asturias eta Altsasun grabatu ondotik, Erratzure ailegatu dire pelikularen grabaketarekin segitzeko. Gauden astean kanpoko estzenak filmatzen hasi ziren, horretarako plaza... trafikorako itxi egin dute. Barneko irudiak ostiatuan grabatuko dituzte.

BEINTZAKO OSTATUA
 ☎ 948 45 00 14
 www.beintzakostatuaren.com
 14751 BEINTZA-LARREN
ORBELA

Javier Manterola
Tekniko instalazioen
 Itargietza • gasa • kaleraketa
 ☎ 629 449082
 Barlandia 4, beheko • BERA

PAGOLA EMBUTIDOS
artesano desde 1940
 Altzateko plaza, 2 • BERA • Tel. 948 630 054

Lanchas
 PARKETAK - TARIMAK
 KUTXILLATZEA ETA BERMIZATZEAK
 ESTALDURA OROKORRAK
 Bera - Tloax: 948 630 735 - 407 406 781

Lizun
 Etxeko Ardi Gazta
GAZTANDEGIA
 Petxenekoborda • SUNBILLA • Tel: 948 450 862

SARA

Patxi Irazoki igantziarrak irabazi zuen Sara Korrika lasterkaldia

Irailaren 9 egindako proban
136 lasterkalarik parte hartu zuten

Laetitia eta Sandrine

Seigarren aldikotz iragan da Sara korrika lasterkaldia besta irailaren 9an. Antolatzaileak arras kontent ziren partehartze handiarekin; 136 lasterkalari denetara. Aurten Patxi Irazoki igantziarrak irabazi zuen, berak bukatu zuen bigarren kontrabandisten lasterkaldian.

Bestak ohargabeen pasatu dira

Aurtengo bestak giro onean pasatu dira. Usaian bezala larunbatean kontzertu eta dantzaldiek arrakasta polita bildu dute baita lasterkaldiak ere.

Igandean eguraldi pollita egin zuen, ekitaldi guztiak egin dira he-



UTZIANO ARIZAGA

Sara VTT proban 192 txirrindularik parte hartu zuten Irailaren 24an igandearrekin iragan da Sara VTT. Bizikletariak goizeko 9etan abiatu dira plazatik, aukera zuten 20 edo 35 kilometroko ibilaldia egiteko sara inguruan. Euria egin zuen goiz hartan bainan halere 192 pertsonak parte hartu zuten. Giro onean pasatu da eguna. Sei garren urtea da ibilaldi hori antolatua dela, azpimarretzekoa da urtero geroz eta jende gehiago hurbiltzen dela. Lehenbiziko urtean 50 bat pertsonak parte hartu zuten eta joan den urtean 160 lagun ziren, gehienak inguruko herrietatik etorriak.

riko plazan. Astelehenean aintz jende hurbildu zen Oihain ikastolak antolatutako zikro jatera. Asteartean gaztetxean "jet set" gaua ospatua izan da, Sun Flower taldeak jo zuen gaztetxean eta asteaz-

kenean herriko baserri-tarrek usaiako hitzordua ukan dute primekin.

Errugbi sasoina hasi da

Gazteek entrenamenduak berriz hasi dituzte irailaren 23an. Ber-

talde, senior taldeak irailaren 17an hasi du lehiaketa Karboren kontra. Bi taldeek galdu zuten eta irailaren 24an ere galdu zuten Azkainen kontra. Agian sasoina hobekiago iraganen da. Kurai on!!!

HEBETIKO
ETXENO
IDENTZIOX
CAFÉ DE LA MAIRIE
T: 0559542519
Maison eta Yéronique
SARA

MENDI LANAK
Zerrakurak • Pikete salmenta
Landaketa eta garbiketa
ETXARTE - IGANTZI
630 943 589 - 948 637 567 (31.00etatik aintzin)

**ttipi
ttapa**
www.ttipi.net
info@ttipi.net
☎ (0034) 948635458

ARMUA
Jatetxea
Tel: 948 599 131
Zugazmurdiko errep. 1. km
URDAZUBI

ZOANSA
SEAT
HYUNDAI
AUXI
ZOANSA
MARKA GUZTIEK KONPONKETA
Banarts. 2 - Alkaiaga industrialdea
LESACA (sarrera Beratik)
Tel: 948 625 555 - Faxa: 948 625 505

bentamiguel
desa, pertsa eta ontasun
Ongi zaindutako sukaldaritza
Menuak aukeran
Tibuko
Likonak
Jantzerak
Urdabegia

SOULE
hileta artea
Tel: 948 453 444
Mug: 629 659 583
SARA

URDAZUBI

34 ikaslek hasi dute ikasturte berria



Bi ikasle berri bakarrik sartu dira irailean Urdazubi eta Zugarramurdiko eskoletan

Fanny eta Aitor

